

«Autogestioak irabazitako espazio bakoitza instituzioek galdutakoa da»

Anarkismo garaikidearen aurpegi esanguratsuenetakoa da Carlos Taibo (1956, Madril). Desazkundera, altermundismoa, libertarismoa eta Europa ekialdeko gatazken inguruan pentsatu eta idatzi izan du gehienbat. Aurreneko hirurak lantzeko gelditu gara Madrilen. Zuhurtzia eta hitz zainduak medio, praktika libertarioen gorakada ukaezin baten aurrean gaudela hautematen du. Memento historikoak galtzada ahalbidetu duelakoan.

| JURGI ARRUTI AGIRRE |

Argazkiak: Manon Dumont



Irakaskuntza, osasungintza eta banku publikoa aldarrikatzen diren honetan, "autogestionatua" eta "publikoa" bereizi egiten dituzu zuk.

Eztabaida gorabeheratsua da. Eta ez daukat irtenbide magikorik, aitortzen baitut mundu libertarioan hedatu diren bi pentsamenduak direla legiti-

moak eta biek dituztela ahulguneak. Lehenengoak dio: publikoa, kontzeptu gisa, baztertu egin behar dugu; gizarte paralelo bat eraiki behetik,



“Proiektu politiko batek autogestioa alboratu eta estatu-ekintzak mahairatzen dituenean, epe urriko traza duen etorkizuna iradokitzen duenean, ezinbestean, sozialdemokrazia da. IU eta Podemos proiektu sozialdemokratak dira”.

komunikatzen, esaterako, eskola libertarioak eraikiz. Eta badago beste alderdi bat honakoa dioena: hori ondo dago, baina ezin ditugu egitura publiko guztiak kapitalaren esku utzi, egun Estatuarenak diren egitura publikoak autogestionatu behar ditugu, Estatuarenak izaten jarrai ez dezaten. Bigarrenaren alde kokatzen naiz ni, kasu honetan, arazoi pragmatikoak direla bide. Gizarte mailakatu honetan azpialdean kokatzen direnei eskola eta osasun publikoa kentzen bazaizkie, esango nuke etorkizuna are triste eta beltzagoa bilakatuko zaiela, literalki. Beraz, zentzudunagoa iruditzen zait publikoa dena autogestionatzeko borrokatzea, onartzen delarik, baina, badirela autogestionatu ezin diren segmentuak. Hori hala, arazoa birjaio egiten da hemen.

Sozialdemokrazia gogor kritikatu duzu.

Uste dut ez duela zentzu handirik honetaz hitz egiteak, eurak bakarrik auto-kritikatzen dira eta. Zer proiektu alternatibo babesten du sozialdemokraziak? Kasurik onenean, kapitalismoaren kudeaketa –kapitalismoa modu zibilizatuan kudeatu ahal izan-

go balitz gisan– eta sistemaren arauen onarpena perspektiba doilorreretik. Europako sozialdemokrazia mendebaldarrak TTIPari eman dion babesa horren guztiaren adibide klasikoa dela uste dut.

Proiektu politiko batek autogestioa alboratu eta estatu-ekintzak mahairatzen dituenean, epe-urriko traza duen etorkizuna iradokitzen duenean eta kapitalismoa ezbaizten ez duenean, hori daukaguna, ezinbestean, sozialdemokrazia da. Eta sozialdemokraziak dena urpetzen duela dirudi. IU eta Podemos proiektu sozialdemokratak dira.

“Gizarte mailakatu honetan azpialdean kokatzen direnei eskola eta osasun publikoa kentzen bazaizkie, etorkizuna are beltzagoa bilakatuko zaie. Beraz, zentzudunagoa iruditzen zait publikoa dena autogestionatzeko borrokatzea”

Onartu beharra dut sektarioegia izatea ez dela komeni. Sozialdemokrazia kontsekuentea eta saldutako sozialdemokrazia bereizi beharko liriteke. Lehenengoak hain dira urriak, baina, uste dudala euren gurea baino proiektu utopikoagoa dela.

“Utopia” adieraren zentzu peioratiboa aletzen duzu, baina. Marx eta Engelsek karga gutxiesgarri hori atxiki zioten: Fourier eta Owenen sozialismoa utopikotzat joz eta euren materialismo historikoa zientifikotzat.

Ez daukat ezer utopiaren aurka. Utopia oinarritzeko elementua da; halaberrezkoa. Gizarte ezberdin bat eraiki dezakegula adierazten digun elementu mobilizatzailea da. Egia da utopia kontzeptu gisa oso zabala dela eta izan ditzakeela kritikagarriagoak diren alderdiak. Utopia oso urrun dagoen amets bat bailitzan interpretatuz gero, egia da, dimensio desmobilizatzailetik ere izan dezake. Nik, hala ere, ez dut ezer utopia hitzaren kontra.

Posible da programa ez-sozialdemokraten presentzia estatu liberalaren markoaren barruan?

Bai, Estatuan sinesten duen ezker komunista tradizionalarena. Kontua da, alta, bide itxia iruditzen zaidala berau. Esperimentu sobietarraren kasuan, bere agerpen ezberdinetan, ondorioztatu behar da ez zela proiektu alternatiborik egon. Estatu-kapitalismo burokratikoak. Ez du kapitalismoaren unibertso historiko eta sozialarekin apurtzen, erretorikak justu aurkakoa ondorioztatzea aholkatzen duenean. Zentzu horretan, onartu dezaket kontzeptualki badagoela sozialdemokraziaren ezberdina den proiekturik, baina gertakariak birrinduta amaitzen dute. Estatuaren eta kapitalaren makinariaren engranajeak pipiatuta.

Estatuari buruz, diozu: “Ez du zentzurik berau kontrolatzea eta bideratzea kapitalarekin akabatzea bada xede”. Beste modu batean esango dut: gizartea zentzu positiboan transformatzeko Estatu kontrolatu behar duela uste duena oker dago. Estatuak eta atzean aurkitzen den maki-

neria kapitalistak xurgatu egiten du horrela pentsatzen duena. Egiakzi, baina, gure artean, eztabaida egonkorragoa da. Kontenpla daitezkeen ekintza politiko gehienek ez dute gizartea transformatzerik asmo izaten. Kasu honetan, Estatuaren inguruko eztabaida bigarren maila batera igarotzen da. Badago aurretiko bat: zer proposatzen duten Estatu erabiliko dutela diotenek. Daukagunaren ezberdina den ezer berririk ez dute proposatzen. Daukagunaren kudeaketan aldaketak.

“Kapitalismoari ihardetsi nahi dion mugimendu orok ezinbestean hiru oinarri izan behar ditu: desazkundera, autogestioa eta antipatriarkalismoa. Hiru euskarri horietatik baten bat falta den heinean, akabatu nahi den sistemaren elementuak erreproduzitzen ariko da”. Estatu liberalaren markoan barne mugimendu altermundistatik identifikatzen duzu?

Hemen bigarren puntua, behintzat, agerikoa da. Autogestioaren logikak irabazitako espazio bakoitza Estatuaren logikak galdutako espazioa da, eta alderantziz. Hori ez ulertzeak harritzen nau, bai baitago jende bat hauteskundeetan parte hartu nahi duena espazio autogestionatu horiei jarraipena emateko asmoarekin. Arrazoibide errespetagarria da, baina nik ez dut ulertzen. Instituzioetan parte-hartzea gizartea des-autogestionatzea da. Hori hala, hor kontratsan bat dago. Autogestioa aldeztan ari bagara, esan nahi delarik behetik hartzen direla erabakiak, instituzioen logikan atzera egiten ari gara.

Teknikoki Estatuak ahalbidetu dezake autogestioa, hala ere.

Nik ez dut adibiderik ezagutzen. Eredu klasikoa iraultza sobietarra da. Iraultza sobietarra oinarritzko gai batekin hasi zen: behetik autogestionatutako iraultza, sobietetatik. Estatuaren logika indarka sartzen denean, sobietak logika independente gisa deuseztatzen dira. Era guztietako proiektu autogestionatuak desagertzen dira. Edo okerragoa dena: erretorikoki subsumitzen.

Anarkistak Estatuarekin gehiegi obsesionatzen direla ere ohartarazten duzu.

“Gizartea zentzu positiboan eraldatzeko Estatu kontrolatu behar duela uste duena oker dago. Estatuak eta atzean aurkitzen den makineria kapitalistak xurgatu egiten du horrela pentsatzen duena”

Egia da. Anarkista asko daude modu legitimo batean Estatuak esan nahi duena zalantzan jartzen duten heinean, Estatuaren atzean kapitalaren logika dagoela ahanzten dutenak. Hori hala, ez diote kapitalaren logikari behar adina atentzio jartzen. Eta nire ustetan garrantzikoagoa da bigarrena, joko-arau nagusiak biltzen dituelako. Ez hori bakarrik. Askotan oroitzen dut alienazio eta esplotazio modu asko daudela Estatutik igarotzen ez direnak. Horrenbestean, Estatuarekin obsesionatzen bagara, norabidea galtzen ari gara gure gizartea ezaugarritzen duten elementuekiko. Ulertzen dut deriba hau justifikagarria dela pentsamendu libertarioan. Besteek Estatu instituzio gisa idealizatzen duten heinean, ni obsesionatu egiten naiz instituzio horrekin, horrenbeste, ezen errespetagarria, onargarria eta bateragarria den kritika egiten dudala. Beste elementuen ahanztura ekar dezake horrek.

Zure ustez desazkundera ukazina da egin beharreko prozesu gisa, besteak beste lurreko lehengai naturalak mugatuak direla.

“Alineazio eta esplotazio modu asko daude Estatutik igarotzen ez direnak. Estatuarekin obsesionatzen bagara, norabidea galtzen ari gara”.

ko. Bi deshazkunde-eredu bereizten dituzu, xehe azalduta: goitik behar-koa eta behetik gorakoa.

Bai, esaten dudana da, hein handi batean, ukatu ezin den prozesu bat dela desazkundera kolapsoa gero eta gertuago dagoelako. Beste bizitza-agertoki batera ohitzea egokituko zaigu, askoz errekurtsio gutxiagorekin. Goitik beherako perspektiba mundu mailako biztanleriaren zati bat sarraskitzean oinarritzen da: sobran dago populazioa, beraz, zokoratu beharra dago, edo sarraskitu, kasurik txarrean. Behetik gorako perspektibak dio: gutxiagorekin bizi gaitzek eta gai gara beste agertoki batera egokitzeko: harreman-ondasunak ondasun materialak baino gehiago balioesten diren jokalekura. Uste dut bereizketa hori legitimoa dela, baina –eta nahasmena sor dezake honek– goitik beherako desazkundera babesten dutenek ez dute “deshazkunde” adiera erabiltzen. Perspektiba kritikoak “ekofaxismo” eta “darwinismo sozial militarizatu” kontzeptuak darabiltza.





“Esaten da: lurrak, nik zer dakit ba, bost mila milioi edo hamar mila milioi gizakientzako edukiera baino ez du. Eta beste espezieak zer? Ez dute axola? Hori planteatzeko gai ez bagara, garrantzikoak uste ditugun beste gauzak ere nekez konponduko ditugu”.

Sakonago azal dezakezu ekofaxismoa kontzeptu gisa?

Sobran dagoela ulertzen den biztanleriaren masakrean oinarritzen dira proiektuok. Honek esan nahi duena da kontzientzia ekologiko batek ez duela elkartasun-proiektuen sorburu izan behar ezinbestean. Kontzientzia ekologiko batek ondoriozta ditzake enajenazioan eta sarraskian oinarritutako proiektuak. Horixe litzateke ekofaxismoaren logika.

Uler daiteke desazkundea landa-eremuen nagusitasunean oinarritzen dela, hiri-eremuen kalterako.



Hori dimentsioetako bat da. Ez nintzateke aurkakorik esaten ausartuko, hala ere, hanka sartuko genuke desazkundearen proiektua hiritarra landatartzera murriztuko bagenu. Desazkundearen proiektuak gauza gehiago hartzen ditu kontuan: bizitza sozialaren gailentasuna bilatzea (landa zein hiri-bizitzan), aisia sortzailea, azpiegitura askoren tamainaren iraultza, bizitza lokalaren berreskurapena, neurritasuna eta abar. Kontua da, gure gizartearen deribari jarrai, megalopoliak eraikitzen joan gara eta ezin imajina daitekeela desazkunde-proiektu bat desurbanizazio eta berlandatartze perspektibatik ez bada. Hala ere, ez dut uste kontu hau modu erradikalean pentsatu behar denik, hiriak desagertu behar direla pentsatzeraino.

Hiriak duintzeko prozesu asko daude, hiri-baratzeen bitartez eta abar. Paris elikagaiz auto-hornitzen zen duela mende bat; ekarri beharreko elementu interesgarria da. Hori kapitalismoaren logika merkantilistak birrindua izan da. Trantsizio etapa batez hitz egin behar da, eta etapa horrek esan nahi du oraingo logikaren parte diren ele-

“Paris elikagaiz auto-hornitzen zen duela mende bat. Hori kapitalismoaren logika merkantilistak birrindua izan da”

mentu askorekin burutu beharko dela trantsizio hori. Ezin dugu pentsatu etzi hiriek akabatu eta landa-bizitza eraikiko dugunik.

“Ezker politikoari iraultza zer den galdetuz gero, ‘gizakia erdigunean jartzea’ erantzungo du, setatsu. Ez da ohartzen mundua nazkatuta dagoela gizakiaz. (...) Espeziari traizioa egiteko mementoa iritsi da. Ez baita inolako gizadirik existitzen, lurtarrak eta etsaiak baino. (...) Iraultza gizonari gerla-adierazpen bat egitean datza. Lurra ipiniz erdigunean”. (Comité Invisible, *A nous Amis*, 2014ko urria).

Mugimendu erradikalean presentzia duen diskurtsoa da. Argudioa muturrera eramanez, adierazten dute ama lurrari eta planetaren logikari egin diezaiokgun ekarpen nagusia espezie moduan gure buruaz beste egitea dela. Hautsi ditugun orekak berreraikitze modu bakarra litzateke. Filosofiko oso serioa den argudiaketa da, baina ez da oso serio hartu behar ez baitut jakin esaldi hori agertu zuek lehen pausoa eman duenik.

Baina argumentu horiek interesgarriak iruditzen zaizkit, naturarekin dugun harremana modu ezberdinean berreraikitze beharra ilustratzen baitute, eta onartzen, gu garaile subjektu nagusia. Planetaren muga demografikoen inguruko eztabaidekin ematen da aditzera hori. Esaten da: lurrak, nik zer dakit ba, bost mila milioi edo hamar mila milioi gizakientzako edukiera baino ez du, modu bidezkoan. Eta beste espezieak zer? Ez dute axola? Oso garrantzitsuak diren itaunketak dira, diskurtso antiespezistak erdigunean kokatzen dituen, gainera, ez baita marjinala. Hori planteatzeko gai ez bagara, garrantzikoak direla uste dugun gauzak ere nekez konponduko ditugu. ■